

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobemu Kontseiluaren 47/2021, Foru Dekretuaren irailaren 29koa. Indarrik gabe uztea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa aldi baterako etetea**

Irailaren 22ko 30/2020 Foru Dekretuaren bidez, aldi baterako eten zen uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onartzen duena.

Foru Dekretu horrek, bigarren xedapenean, honako hau ezartzen zuen: "Etendura hori indarrean sartu eta urtebeteko epean berrikusiko da, inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo baliogabetzea justifikatzen badute".

Eta hirugarren xedapenean arabera, "Foru Dekretu honek 2020ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak".

Etenaldi hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 38.10 artikulua babesten zuen.

Zerga-sarreraren beherakadarekin, BPGren beherakadarekin eta beste adierazle ekonomiko batzuekin etetearen unean zegoen egoera ekonomikoak neurri ekonomikoak hartzea eskatzen zuen, sail guztiek beren partidak diru-sarreraren murrizketa kontuan hartu gabe egikaritzuz gero gertatuko litzatekeen defizitaren zuzenketa bermatzeko.

Inguruabar horretan, aldi baterako eten zen uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onartzen duena.

Etenaldi hori aldi baterakotzat jo zen neurria justifikatzen zuten inguruabar ekonomikoak zirela-eta, eta indarrean sartu eta urtebeteko epean berrikusteko aurreikuspena egin zen, inguruabar ekonomikoek neurria mantentzea edo indargabetzea justifikatzen zutelako.

Etenduraren uneko inguruabar ekonomikoek bilakaera bat izan dute harrezkero, eta, hainbat parametroen arabera, bidezkoa da uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuko (Diputatuen Kontseiluarena, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onartzen duena) 58.3 artikulua etendura bertan behera uztea.

Sindikatuetakako ordezkariekin negoziatu da.

Gizarte Politiken saileko diputatuak proposatuta, eta kontuan hartuta Foru Aldundiko Sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua (Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatua), eta Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 44/2017 Foru Dekretua (Gizarte Zerbitzuetako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua aldatzen duena eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena).

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea uztailaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 59/2007 Foru Dekretuaren 58.3 artikulua aplikazioa aldi baterako etetea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen bigarren akordioa onartzen duena, irailaren 22ko 30/2020 Foru Dekretuaren bidez egina.

Bigarrena. Salbuespen gisa, 3 hilabeteko aurrerapenaz epea betetzetik salbuestea Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 59/2007 Foru Dekretuaren 58.2 artikulua, baldin eta funtzionarioak uko egiteak ondorioak baditu 2021eko urrian, azaroan edo abenduan, eta uko-egitea 45 egun natural lehenago izapidetu behar bada.

Hirugarrena. Foru Dekretu honek 2021eko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 29a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**